

Aingeru Irigarai (Bera 1899-Donostia 1983): In memoriam

Aingeru Irigarai jauna, Eusko Ikaskuntzako Batzorde Nagusiaren biziarteko kidea eta Euskaltzaindiko euskaltzain osoa aurtengo Azaroaren 28an hil zen Donostian.

Beran jaio zen 1899an eta Barcelona, Paris eta Friburgon egin zituen medikuntza-ikasketak.

27 urte zituela Iruñeko Ongintzako sendagile izan zen, eta hiru urte geroago hiri horretako Txikien Auzitegia.


Aingeru Irigarai, Eusko Ikaskuntzako gerrateurreko taldeko partaidea, «Euskararen Adiskideak» taldearen ordezkari izan zen bertan.

Sendagile liberal baten semea. Liberala, abertzalea, Eusko Ikaskuntzako Idazkariordea izan zen 1934tik aurrera eta Elkartearen berreraikuntza lanean parte hartu zuen bigarren aldian Agustin Zumalaberekin batera. Bigarren aldi honetan Manuel Lekuona jaunarekin batera Eusko Ikaskuntzako itzulzaile ofiziala izan zen.

Aldizkari anitzetan izan zen lankide eta Antonio Arrue eta Koldo Mitxelena jaunarekin batera, *Egan* euskal literatur aldizkaria zuzendu zuen.

Bere liburuen artean, *Cuentos populares vascos*, *Prosistas navarros contemporáneos en lengua vasca*, *Noticias y viejos textos de la lengua navarrorum*, eta geografía diacrónica de *El Euskara en Navarra* azpimarra ditzakegu.

Aingeru, herriaren ezagule, herriko tradizio eta ohituren zale, gizon jator, alai eta atsegin, Eusko Ikaskuntzako sustatzailearentzat gure zinezko oromen eta eskerronik sakonena.



Aingeru Irigarai. Bera 1899 - Donostia 1983: In memoriam / [Juan Garmendia Larrañaga]. - En: *Revista Internacional de los Estudios Vascos*. - Donostia : Eusko Ikaskuntza. - T. XXIX, 1 (1984), p. 157-158